

## Ibilbidea

Eusko Legebiltzarra, Becerro de Bengoa kalea  
Vital Fundazioa erakusketa-zentroa. Posta kalea, 13 eta 15  
Artium Museoa. Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa. Frantzia kalea, 24

## Ordutegia

Bisitak larunbat, igande, zubi eta jaiegunetan  
11:00etan gaztelaniaz  
11.30ean euskaraz  
Hasiera: Eusko Legebiltzarra  
Amaiera: Artium Museoa

## Izen-ematea

945 209 020 telefonoan eta museoko txartel-leihatilan bezperako 19:00ak arte.  
Sarrera doan

## Informazio eguneratua

[www.legebiltzarra.eus](http://www.legebiltzarra.eus)  
[www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus)  
[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## Recorrido

Parlamento Vasco. Calle Becerro de Bengoa  
Centro de Exposiciones Fundación Vital. Calle de Postas, 13 y 15  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco. Artium Museoa. Calle Francia

## Horarios

Visitas los sábados domingos, puentes y festivos:  
11:00 h Castellano  
11.30 h Euskera  
Salida: Parlamento Vasco  
Finalización: Artium Museoa

## Inscripción

945 209 020 y en la taquilla del museo hasta las 19:00 h del día anterior.  
Entrada gratuita

## Información actualizada

[www.legebiltzarra.eus](http://www.legebiltzarra.eus)  
[www.fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus)  
[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

2021eko udazkenean, Nestor Basterretxearen lanak eta irudiak garrantzi berezia izango dute Vitoria-Gasteizen, eskultoreak presentzia nabarmena eta berezia duen jatorri bateko eta besteko hiru proposamen aldi berean gauzatuko baitira. Alde batetik, bai Eusko Legebiltzarrak –osoko bilkuren aretoa Izaro obra ikonikoaren buru da–, eta bai Vital Fundazioak, artistaren familiarekin batera Basterretxearen ekoizpenean barrena ibilbide bat eginez, eskaintzen dizkioten erakusketa monografikoak daude. Eta, bestetik, presentzia nabarmena du Artium Museoaren, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren bildumako funtsekin egin den *Zeru bat, hamaika bide* erakusketan.

Testuinguru horretan, hiru erakundeek –Eusko Legebiltzarrak, Vital Fundazioak eta Artium Museoak– bisita gidatuen programa bateratu bat prestatu dute, beren proposamenen elementu garrantzitsuenak ezagutuz, XX. mendearen bigarren erdiko euskal artearen funtsezko irudi baten nortasunean eta ekoizpenean sakontzeko.

Durante el otoño de 2021, la obra y la figura de Néstor Basterretxea alcanzarán una especial relevancia en la ciudad de Vitoria-Gasteiz, al coincidir en el tiempo tres propuestas de distinta naturaleza y origen en las que el escultor tiene una destacada y singular presencia. Se trata, por un lado, de las exposiciones monográficas que le dedican tanto el Parlamento Vasco –cuyo salón de plenos preside la icónica obra *Izaro*– como la Fundación Vital en colaboración con la familia del artista, que realiza un recorrido por la producción de Basterretxea. Y por otro, de su destacada presencia en la exposición *Zeru bat, hamaika bide*, con fondos de la Colección del Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa.

En este contexto, las tres instituciones –Parlamento Vasco, Fundación Vital, Artium Museoa– han preparado un programa conjunto de visitas guiadas que permitirán, recorriendo los elementos esenciales de sus respectivas propuestas, profundizar en la personalidad y la producción de una figura esencial del arte vasco de la segunda mitad del siglo XX.



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

*Vital*

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

ARTIUM  
MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco  
Museum of Contemporary Art of the Basque Country

# Bas te rre txe a

# urratsez urrats

# paso a paso

1

## Izaro- Nestor Basterretxea

Eusko Legebiltzarra

Eusko Legebiltzarra orain 40 urte (1980an) sortu zela ospatzeko, haren egoitzan Nestor Basterretxearen Izaro eskulturaren intrahistoriaren berri ematen duen erakusketa bat dago. Eskultura sortzeko prozesuan artistak egindako zirriborro eta marrazkiek, askotariko dokumentu, argazki edo prentsa-ebakinek, eta irudiaren erreplika, bertso eta erabilerek osatzen dute erakusketa. Material horiek, garai bereko beste obra batzuekin batera —ondoko iturrietatik: Eusko Legebiltzarra, Ipiña Bidaurrezaga Bilduma, Kutxa Fundazioa, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, Artium Museoa, Bilboko Arte Ederren Museoa eta Basterretxea Familia—, Nestor Basterretxearen sormen artistikoaren metodoa ulertzeko aukera ematen dute, eragin handia izan baitzuen harengan industria-diseinuarekiko eta -ekoizpenarekiko zuen interesak. *Izaro* enblematikoaren sorreraren ibilbidea aurkezteaz gain, artista eta haren unibertso formala omentzen ditu erakusketak.

*Izaro*, Euskadiko Legebiltzarraren ikur instituzionala, haritz zurez egindako eskultura trinkoa da, Gernikako Zuhaitz Zaharraren inkrustazioak ditu, eta goitik begiratzen die Legebiltzarreko eztabaidei 1983an, egilearen ikuskaritzapean, Ganberaren aurreko aldean kokatu zenetik. Erakusketa dela-eta, Basterretxearen beste lan handi bat, *Homenaje al Árbol de Gernika* (1979), *Izaroren* aurrekari zuzentzat jotzen dena, Kutxa Fundazioak Eusko Legebiltzarrari utzi dio, komodatuan, eta bertan egongo da datozen urteetan.

Komisarioa: Peio Aguirre

Antolatzaileak: Eusko Legebiltzarra eta Bilboko Arte Ederren Museoa

## Izaro- Nestor Basterretxea

Parlamento Vasco

Con motivo de la conmemoración del 40 aniversario de la creación del Parlamento Vasco (1980), su sede acoge una exposición que aborda la intrahistoria de la escultura *Izaro* de Néstor Basterretxea. La muestra se compone de bocetos previos y dibujos realizados por el artista durante el proceso de creación de la escultura, documentación diversa, fotografías o recortes de prensa, así como réplicas, versiones y distintas aplicaciones de su imagen. Estos materiales, junto a otras obras del mismo periodo —procedentes del Parlamento Vasco, Colección Ipiña Bidaurrezaga, Kutxa Fundazioa, Lazkaoko Beneditarren Fundazioa, Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco Artium Museoa, Museo de Bellas Artes de Bilbao y Familia Basterretxea— permiten comprender el método de creación artística de Néstor Basterretxea, muy influido por su interés por el diseño y la producción industrial. Además de presentar el itinerario creativo de la emblemática *Izaro*, la muestra rinde homenaje al artista y a su universo formal.

*Izaro*, símbolo institucional del Parlamento de Euskadi, es una escultura maciza hecha en madera de roble con incrustaciones del Árbol Viejo de Gernika. Preside los debates parlamentarios desde que, en 1983, bajo la supervisión de su autor, se instaló en el testero de la Cámara. La exposición ha posibilitado que otra magna obra de Basterretxea, *Homenaje al Árbol de Gernika* (1979), considerada antecedente directo de *Izaro*, haya sido cedida por su propietaria Kutxa Fundazioa en comodato al Parlamento Vasco, en donde permanecerá los próximos años.

Comisario: Peio Aguirre

Organiza: Parlamento Vasco y Museo de Bellas Artes de Bilbao

2

## Nestor Basterretxea

Vital Fundazioa erakusketa-zentroa

Vital Fundazioa erakusketa-zentroak *Nestor Basterretxea* erakusketa du ikusgai, artistaren (1924-2014) lanaren errepasso zabala. Erakusketa honetan bere izaera polifazetiko nabarmendu da, eta publikoak inoiz argitara atera gabeko lanak ikusteko aukera izango du. Vital Fundazioak, familiarekin batera, Basterretxearen lan artistikoa omendu nahi izan du, eta haren esperimintatzeko borondate etengabea utzi nahi izan du agerian, lanak behin eta berriz berrinterpretatzera eraman zuena, bere diseinuei bizitza ugari emanaz.

Marrazkia da erakusketaren ardatza. Arkatza, errotuladorea eta papera izan ziren ezagutzen ditugun obra askoren hasiera. Estetikari aurre egiteko zuen moduak diziplina batzuen eta besteen arteko harremanak alde batera uztea eragozten zion; eta esan beharra dago diziplina horietako zenbait ezezagunak direla publikoarentzat.

Erakusketa artistaren lanaren 60 urte baino gehiagoren berrikuspena da, hiru espaziotan banatua: figuratibotik abstrakturako bidaia, planotik espaziora eta imaginatutakotik sakratura. Hau da, pinturan hasi zenetik eskulturariki ekin zion arte, baina zinemagintzan, diseinu industrialean, grafikoa eta altzarigintzakoan egin zituen saiakerak, arkitekturaren eta hirigintzan burutu ez ziren proiektuak, argazkigintza, kartelgintza edo idazketa lanak ahaztu gabe.

Antolatzaileak: Fundación Vital Fundazioa eta Talka Galeria

## Nestor Basterretxea

El Centro de Exposiciones Fundación Vital

El Centro de Exposiciones Fundación Vital presenta la muestra *Néstor Basterretxea*, un extenso repaso a la obra del artista (1924-2014) en el que se destaca su carácter polifacético. El público podrá disfrutar de obras inéditas a lo largo de esta exposición en la que Fundación Vital junto con la familia ha querido homenajear su labor artística y desvelar la constante voluntad de experimentación que le llevó a reinterpretar sus propias obras dotando de diferentes vidas a sus diseños.

El dibujo es el eje vertebrador de la muestra. El lápiz, el rotulador y el papel fueron el inicio de muchas de las obras que conocemos. Su manera de afrontar lo estético le impedía obviar las interrelaciones de las diferentes disciplinas, algunas de ellas desconocidas para el público.

La muestra es una revisión de más de 60 años de la obra del artista, distribuida en tres espacios: un viaje de lo figurativo a lo abstracto, del plano al espacio y de lo imaginado a lo sagrado. Desde sus comienzos en la pintura hasta su irrupción en la escultura, pero sin olvidar las incursiones en el cine, el diseño industrial, gráfico y de mobiliario, los proyectos no realizados de arquitectura y urbanismo, la fotografía, el cartelismo o la escritura.

Centro de Exposiciones Fundación Vital

Organiza: Fundación Vital Fundazioa y Talka Galeria

3

## Zeru bat hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 bitartean

Artium Museoa

Ibilbidea Artium Museoaren aretoetan amaitzen da, Bildumari eskainitako erakusketan ikusgai dauden Nestor Basterretxearen lanak eta proiektuak bisitatuz. 1977 da funts museografikoen erakusketa honen abiapuntua, mugarri politiko, sozial eta kultural askoko aldia hasi baitzen urte hartan, eta 2002an amaitzen da, erakundea ireki zen urtean. Narratiba ireki eta eraikitzen ari den baten eran planteatu da erakusketa, ehun artelan, dokumentu eta artxiboko material baino gehiago biltzen dituen, proiektuak hartzen duen mende laurdeneko adierazpen aniztasunean barrena bidea eginez.

Ikusgai dauden pieza askotan, marrazkiaren bi dimentsioetatik espaziora arteko garapena jarraitu daiteke, eta ibilbide hori zenbait arkitektura-proiektu eginez amaituko da. Proiektu horiek maketa, *collage* eta marrazkietan agertuko dira erakusketaren ibilbidean. Lan horiek dauden espazio berean Esther Ferrer, Jorge Oteiza eta Eduardo Chillida artistenak daude, baina baita gaur egungo Txomin Badiola, Maria Luisa Fernández eta Ibon Aranberrirenak ere. Azken horren *Gaur Egun* (*This is CNN*) eskulturak, 2002. urtean eginak, *Izaro* eskultura dakar gogora, zeinarekin hasi baitugu ibilbidea.

Komisarioak: Xabier Arakistain, Beatriz Herráez eta Miren Jaio

## Zeru bat hamaika bide. Prácticas artísticas en el País Vasco entre 1977y 2002

Artium Museoa

El recorrido concluye en las salas del Museo Artium con la visita a obras y proyectos de Néstor Basterretxea expuestos en la muestra dedicada a la Colección. El punto de partida de esta exposición de los fondos museográficos comienza en 1977, año que inicia un periodo de grandes hitos políticos, sociales y culturales, y concluye en 2002, año de apertura de la institución. La muestra se plantea como una narrativa abierta y en construcción, que reúne más de un centenar de obras de arte, documentos y materiales de archivo, trazando un recorrido por la pluralidad de manifestaciones surgidas en el cuarto de siglo que abarca el proyecto.

En muchas de las piezas expuestas del artista es posible seguir el desarrollo desde las dos dimensiones del dibujo hasta el espacio, recorrido que culminará en la realización de distintos proyectos de arquitectura, que se incluyen a través de maquetas, *collages* y dibujos en el recorrido de la muestra. Estas obras conviven en el espacio con la de artistas como Esther Ferrer, Jorge Oteiza y Eduardo Chillida, pero también con la de autores contemporáneos como Txomin Badiola, Maria Luisa Fernández e Ibon Aranberri, cuya escultura *Gaur Egun* (*This is CNN*), realizada en el año 2002, remite a la escultura *Izaro* con la que comenzamos este recorrido en la ciudad.

Comisarias: Xabier Arakistain, Beatriz Herráez y Miren Jaio